

ENPRESAGINTZAKO NEGUKO BARNE TXAPELKETA

FRONTENIS BINAKA

- Guztiek guztien aurka jokatuko dute.
- Finala partidu bakarrera jokatuko da, eta irabazlea txapelketako irabazlea izango da.
- Pelotak campuseko harreran eskatu behar dira; amaitzean, berriz, bertara itzuli.
- Partiduko irabazlearen ardura izango da emaitza kirol zerbitzura idaztea.

SARIAK:

- Bi sari irabaziko dira:
 1. Mondragon Unibertsitateko kirol txapelketan jokatzeo aukera (otsailean).
 2. Enpresagintzako frontenis txapelketako talde irabazlearentzat 20€/partaideko saria izango da. Saria ondorengo eratan jasotzeko aukera egongo delarik: Forum Sport kirol dendetan erosketa balea edo pertsonako 20€ko balio duen afari bat.
 - Saria ez da inoiz dirutan emango.
 - Sariak pertsonalak eta trukaezinak dira.
 - Txapelketako izenemate-orrian agertzen diren pertsonak bakarrik jaso ahal izango dute saria.
 - Partaide guztiek sari hautaketa berdina egin beharko dute.

FRONTENIS ARAUTEGIA

1. **15 puntu arteko 2 partida** jokatuko dira eta biak irabazi beharko dira puntua eskuratzeko.
2. **Berdinketa** egon ezker **8 puntu arteko 3. Partida** bat jokatuko da eta hau irabazten duenak eskuratuko du puntua.
3. Tanteoa kontutan hartuko da.
4. 15 arteko partidako tanteoa bakarrik hartuko da kontutan. Bi partiden arteko berdinketa egon ezker, **8 arteko partidaren tanteoa EZ DA KONTUTAN HARTUKO.**